



Departamento de
EUSKERA

Nivel
C1

C1 Maila

1. Mailaren definizioa	2
2. Trebetasun bakoitzaren helburu orokorrak eta berariazkoak	2
3. Gaitasunen arloko oinarrizko edukiak.....	4
4. Ebaluazioa.....	14
4.1. Ebaluazio irizpideak.....	14
4.2. Ebaluazio prozedura.....	14
A. Ebaluazio formatiboa.....	14
B. Azterketa finala	15
4.3. Kalifikazio irizpideak	16
5. Metodologia	16
6. Materialak eta Baliabideak.....	16
7. Jarduera osagarriak	17

NIVEL C1

Araubide bereziko C1 mailako hizkuntza ikasketen bidez irakasleei eta beste profesional talde batzuei prestakuntza eman nahi zaie, eta, oro har, helduei, hizkuntzak ikasteko premia berariazkoak dituztenean: trebetasun arlo guztietan gaitasunak hobetzea, trebetasun partzialak garatzea hizkuntza batean edo gehiagotan, helburu jakinetarako hizkuntzak, bitartekotza eta beste batzuk. Hizkuntzaren batean C1 mailako gaitasun agiri ofiziala lortu nahi duten pertsonak ere egin ditzakete ikasketak hauek.

1. MAILAREN DEFINIZIOA.

Hizkuntza malgutasunez, eragingarritasunez eta zehaztasunez erabiltzea, edonolako egoeratan parte hartzeko, esparru pertsonal, publiko, akademiko eta profesionalean, horietan ahozko eta idatzizko testu zabal eta konplexuak ulertu, sortu eta prozesatu behar direnean, hizkuntzaren barietate estandar batzuetan, errepertorio lexiko zabal batekin, bai gai abstraktuei bai zehatzei buruz, baita hiztuna ohiturik ez dagoenekoie buruz ere.

2. TREBETASUN BAKOITZAREN HELBURU OROKORRAK ETA BERARIAZKOAK.

2.1. Ahozkoaren ulermena.

🚩 Helburu orokorra.

Ulertzea, baita oso ongi entzuten ez denean ere, testu zabalak, hizkuntzaren eta kontzeptuen aldetik konplexuak, esamolde idiomatiko eta lagunartekoak dituztenak, eta gai zehatzak nahiz abstraktuak edo ikaslearentzat ezezagunak lantzen dituztenak, arlo tekniko edo espezializatuak ere barne, hizkuntzaren barietate estandar desberdinak erabiliz, ohiko abiaduran nahiz azkarrago ahoskatuz; baliteke ikasleak xehetasunen batzuk argitzeko eskatu behar izatea, batez ere doinua arrotza gertatzen bazaio.

🚩 Berariazko helburuak.

- Berariazko informazioa ulertzea kalitate kaskarra eta soinu distorsionatua duten adierazpen eta azalpen publikoetan; adibidez, geltoki batean edo estadio batean.
- Informazio tekniko konplexua ulertzea; esate baterako, eguneroko produktu eta zerbitzuen funtzionamenduari buruzko jarraibide eta zehaztasunak.
- Norberaren lanbidearekin edo jarduera akademikoekin zerikusia duten gaien gaineko informazio konplexua eta aholkuak ulertzea.
- Gai profesional edo akademiko konplexuen gaineko hitzaldi, solasaldi, eztabaida eta debate gehienak erraz samar ulertzea.
- Askotariko grabazio eta emanaldietako materialak ulertzea, hizkuntzaren ohiz kanpoko erabileraren bat barne, eta xehetasun eta sotiltasunei antzematea, adibidez, hiztunen arteko jarrera eta lotura inplizituei.
- Argot edo lagunarteko hizkera eta esamolde idiomatikoak erraz erabiltzen diren filmak ulertzea.
- Beste pertsona batzuen arteko solasaldi eta eztabaida nahiko luzeetako xehetasunak ulertzea, baita gaia abstraktua, konplexua edo ezezaguna denean ere, eta esaten dutenaren asmoa harrapatzea.
- Norbera mintzakide izanik, solasaldi nahiko luzeak ulertzea, nahiz eta garbi egituraturik ez egon eta ideien arteko loturak inplizituak baizik ez izan.

2.2. Ahozko adierazpena eta elkarreragina.

🚩 Helburu orokorra.

Gai konplexuez testu argi eta zehatzak egitea, beste gai batzuk txertatu eta ideia zehatzak garatzea eta testuari bukaera egokia ematea. Halaber, errepertorio lexiko zabala jakitea, hutsuneak itzulginguruekin aise bete ahal izateko hainbat motatako solasaldi luzeetan aktiboki parte hartzen duenean, arintasunez, naturaltasunez eta ia batere ahalegindu gabe mintzatuz.

🚩 Berariazko helburuak.

- Jendaurreko adierazpenak arintasunez egitea, ia ahaleginik gabe, doinua erabiliz esanahiaren ñabardurak zehaztasunez adierazteko.
- Gai konplexuak modu argian eta ongi egituraturik aurkeztea, nahiko aurkezpen zabala eginez, beste gai batzuk txertatuz, ideia zehatzak garatuz eta norberaren ikuspuntuak defendatuz ideia osagarri, arrazoi eta adibide aiposatu bitartez, eta bukaera egokia ematea. Halaber, entzuleen galderei bat-batean eta ia batere ahaleginik gabe erantzutea.
- Elkarrizketa batean bete-betean parte hartzea elkarrizketatzailearena edo elkarrizketatuarena eginez. Eztabaidatzen diren ideiak arintasunez garatzea, laguntzarik gabe, eta ongi erabiltzea interjekzioak nahiz bestelako mekanismoak, erreakzioak adierazteko eta solasari behar bezala eusteko.
- Ondasun eta zerbitzuak lortzeko transakzio eta trukeetan, kalte-galerengatik gatazken konponbidea negoziatzea, norberaren argudioak garatzea, kalte-ordaina eskatzeko hizkera eraginkorra erabiliz, eta zerbaitetan amore emateko prest badago, argi eta garbi adieraztea noraino.
- Modu aktiboan parte hartzea solasaldi eta eztabaida formal animatuetan, eztabaidagai abstraktu, konplexu eta ezezagunen inguruan ikuspuntu desberdinetako argudioak zehatz identifikatuz, norberaren jarrera formalki argudiatuz, zehaztasun eta irmotasunez; galdera edo oharrei erantzutea eta kontrakoen arrazoibide konplexuei arintasunez, bat-batean eta egoki ihardestea.
- Modu aktiboan parte hartzea solasaldi informal animatuetan, gai abstraktu, konplexu edo ezezagunen inguruko ideiak eta iritziak zehaztasunez adieraziz; arrazoibide konplexuak modu sinesgarrian aurkeztea eta halakoei eraginkortasunez erantzutea.

2.3. Irakurriaren ulermena.

🚩 Helburu orokorra.

Testu zabal eta konplexuak, norberaren espezialitatekoak izan edo ez, zehaztasun osoz ulertzea, betiere atal zailak berriz irakurtzeko aukera dagoela.

🚩 Berariazko helburuak.

- Tresna eta prozedura berriei buruzko jarraibide zabal eta konplexuak, norberaren espezialitateko jarraibideak izan edo ez, zehaztasun osoz ulertzea, betiere atal zailak berriz irakurtzeko aukera dagoela.
- Edozein gutun ulertzea, noiz edo behin hiztegia erabiliz.
- Zehaztasun osoz ulertzea arlo sozial, profesional edo akademikoko artikulak, txostenak eta beste testu luze eta konplexu batzuk, eta inplizituki edo agerian jarrerak eta iritziak barnean dituzten xehetasun sotilak identifikatzea.
- Literatura garaikideko testuak zailtasunik gabe ulertzea eta mezu, ideia edo ondorio inplizituak atzematea.

2.4. Idatzizko adierazpena eta elkarreragina.

🚩 Helburu orokorra.

Testu argi eta ongi egituratuak idaztea gai konplexuei buruz, ideia nagusiak azpimarratuz, aurkezpen nahiko zabala eginez eta norberaren ikuspuntuak defendatuz ideia osagarri, arrazoi eta adibide aiposatu bitartez, eta testuari bukaera egokia ematea.

🚩 Berariazko helburuak.

- Txosten, artikulak eta saiakera argi eta ongi egituratuak idaztea gai konplexuei buruz, ideia nagusiak azpimarratuz, aurkezpen nahiko zabala eginez, norberaren ikuspuntuak defendatuz ideia osagarri, arrazoi eta adibide aiposatu bitartez, eta testuari bukaera egokia ematea.
- Fikziozko testu argi, zehatz eta ongi egituratuak idaztea, irakurri behar dituztenentzat egokiak, estilo sinesgarri, pertsonal eta naturalean.
- Norberaren espezialitateko gaien inguruko hitzaldi, ikastaro edo mintegi batean oharrak hartzea, informazioa hain zehatz idatzita eta jatorrizkotik hain gertu, non oharrak beste pertsona batzuentzat ere baliagarriak izan bailitezke.

- Gutun pertsonalak idaztea, euskarria edozein izanik, argitasun eta zehaztasunez, eta hartzailearekiko harremanetan malgu eta eraginkor jokatzea, hizkera emozionala, hitz-erdikakoa eta umorezkoa erabiliz.
- Gutun formalak idaztea, behar adinako zuzentasunez eta kasuan kasuko egoerari, hartzaileari eta formatuari dagozkien konbentzioak betez.

2.5. Bitartekotza.

- Hainbat motatako testu luze eta xehetasunez beteak parafraseatu eta laburtzea, eta hainbat iturritako informazioak idatzizko testu koherente batean biltzea.
- Hainbat motatako testu luze eta xehetasunez beteak ahoz parafraseatu eta laburtzea, eta hainbat iturritako informazioak ahozko testu koherente batean biltzea.

3. GAITASUNEN ARLOKO OINARRIZKO EDUKIAK.

C1 mailarako kontuan hartu behar diren gaitasunezko edukiak zehaztu egin beharko dira curriculumaren garapenean eta programazio didaktikoetan. Honako hauek dira:

3.1. Gaitasun orokorrak.

3.1.1. Gaitasun soziokulturalak.

C1 mailan, ikasleak gai izan behar du hizkuntza xede sozialetarako malgutasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko; beraz, sakonean landu behar dira hizkuntzaren erabileraren alderdi soziokulturalak eta horiek hizkuntzan duten eragina.

Gaitasun hauen garapena zeharkako zereginen bitartez bultzatuko da, hots, xede hizkuntzan hitz egiten duten erkidegoetako alderdi soziologikoak, geografikoak, historikoak edo kulturalak bilduko dituzten zereginen bidez, alderdi horiek ikasleek benetako komunikazio egoeretan ulertu, sortu eta landu beharko dituzten benetako testuetan agertzen diren moduan. Honako alderdi hauek kontuan hartu eta garatuko dira:

- Eguneroko bizitza: jaiak; ordutegiak; lana; aisiako jarduerak.
- Bizi baldintzak: bizi mailak; etxebizitza; lana; gizarte laguntza.
- Pertsonen arteko harremanak: gizartearen egitura eta gizarteko kideen arteko harremanak (sexuen artean; familian; belaunaldien artean; lanean; agintariekin eta Administrazioarekin; komunitateetan; talde politiko eta erlijiosoen artean).
- Balioak, sinesmenak eta jarrerak: gizarte klaseak; lanbide taldeak; eskualdeetako kulturak; erakundeak; historia eta usadioak; politika; arteak; erlijioa; umorea.
- Zinesia, proxemika eta paralinguistika alderdiak: keinuak; jarrerak; aurpegierak; begien bidezko kontaktua; gorputzaren bidezko kontaktua; hizkuntzaz kanpoko soinuak eta kualitate prosodikoak (ahots tankera, tonua, azentuazioa, bolumena).
- Gizarte konbentzioak: jokamoldeak, ohiturak, jokaeraren gaineko konbentzio eta tabuak.
- Errituzko jokaerak: jendaurreko jokaerak; ospakizunak; zeremonia eta jardunbide sozial eta erlijiosoak.
- Oinarrizko geografia: klima eta ingurumena; hizkuntza erabiltzen duten herrialde nagusiak eta hiri garrantzitsuenak; geografiak hizkuntzan duen eragina; hizkuntzaren aldaera geografikoak: ahoskera, lexikoa.

3.1.2. Nozio gaitasunak.

Beheko zerrendan aipatzen diren nozioak curriculumetan eta programazio didaktikoetan banakatu eta garatu behar dira. Nozio edo kategoria kognitibo orokorrak dira, edozein hizkuntza eta kulturari aplikatzekoak, eta beti ageri dira komunikazio egoeretan eta hizkuntzaren bidez egindako testu orotan.

Nozioen azpimota guztien esponenteak landuko dira C1 mailan, kontuan izanik esponente horiek formaz eta kontzeptuz konplexuak, ez hain ohikoak edo espezializatuak izan daitezkeela, eta esponente horiek bai mailarako zehazten diren errepertorio lexikoei bai egitura sintagmatiko, sintaktiko eta testualei dagozkiela.

- Entitateak: entitateak (pertsonak, objektuak eta beste izaki konkretu eta abstraktu batzuk) adieraztea eta aipatzea.

- Tasunak: existentzia, kantitatea (kopurua, neurriak, kalkuluak, gradua), nolakotasuna (propietate fisikoak: forma, tenperatura, kolorea, materiala, konsistentzia, hezetasuna, ikuspena, propietate akustikoak, zaporea, usaina, adina, egoera ikusgarria; propietate psikikoak: prozesu kognitiboak, sentimenduak, bolizioa), balioespena (prezioa, balioa, kalitatea, egokitasuna, zuzentasuna, egiazkotasuna, normaltasuna, lehentasuna, erabilgarritasuna, garrantzia, beharra, aukera, gaitasuna, zailtasuna, arrakasta).
- Harremanak: espazioa (espazioan absolutuki eta erlatiboki kokatzea): toki zehatza / zehaztugabea, kanpoaldea / barnealdea, hurbiltasuna / urruntasuna); mugimendua (nondik norakoa, helmuga, lekualdaketa, garraioa); magnitudeak eta neurriak (tamaina, luzera, azalera, bolumena, pisua); denbora (kokapen absolutua eta erlatiboa denboran: unea, lehenagokotasuna, aldiberekotasuna, gerokotasuna, iraupena, hasiera, iragaita, amaiera, aldaketak, abiadura, maiztasuna, errepikapena); egoerak, prozesuak eta jarduerak (aspektua, modalitatea, parte-hartzaileak eta haien harremanak); erlazio logikoak (egoera, prozesu eta jardueren artean): ekintzaren erlazioak (agentea, objektua, tresna, modua), predikazioa, antzekotasun eta konparazio erlazioak, edutezkoa, konjuntzioa eta disjuntzioa, inklusioa eta esklusioa, aurkakotasuna eta mugaketa, baldintza, kausa, jatorria, ondorioa, xedea, emaitza, lehenagokotasuna, aldiberekotasuna, gerokotasuna.

3.2. Komunikazio gaitasunak.

3.2.1. Gaitasun soziolinguistikoa.

Gaitasun honek hizkuntzaren erabileraren alderdi sozialari heltzeko behar diren ezagutzak eta trebetasunak biltzen ditu, besteak beste, gizarte harremanetako adierazgailu linguistikoak, adeitasun arauak, esamoldeak eta herri jakintzaren adierazpenak, erregistroak, dialektoak eta doinuak.

C1 mailan, ikasleak malgutasunez eta eraginkortasunez komunikatzeko adina garatu behar du gaitasun hau, hizkuntzaren erabilera emozionala, hitz-erdikakoa eta umorezkoa ere kontuan hartuz. Horretarako hizkuntzaren aldaerak eta erregistro aldaketak atzeman behar ditu, eta askotariko esamolde idiomatikoak, lagunartekoak eta argotekoak ezagutu. Hala ere baliteke noizean behin xehetasunak egiaztatu behar izatea, batez ere doinua arrotza gertatzen bazaio.

3.2.2. Gaitasun pragmatikoa.

3.2.2.1. Gaitasun diskurtsiboa.

C1 mailan, ikasleak gai izan behar du mota, formatu eta gai askotako testu zabal eta konplexuak sortzeko, ulertzeko eta lantzeko, hizkuntzaren aldaera estandarretan eta erregistro desberdinetan. Horretarako hizkuntza baliabideen sorta oparoa erabili behar du eta baliabideok eraginkortasunez egokitu behar ditu kasuan kasuko testuinguruan, baita testuinguru espezializatuetan ere.

Ikasleak testuak eratzeko gaitasun zehatz batzuk eskuratu behar ditu, beren testuinguruan egokitutako testuak sortzeko eta ulertzeko, zeinek barneko antolamendu konplexua izanen baitute. Gaitasun horien zehaztapenean honako alderdi hauek garatuko dira:

■ *Testu koherentzia: ahozko edo idatzizko testua komunikazio egoerari egokitzea:*

- Testu mota eta formatua.
- Hizkuntzaren aldaera.
- Erregistroa.
- Gaia. Hurbilketa eta edukia: garrantzizko edukia aukeratzea; lexikoa aukeratzea; egitura sintaktikoak aukeratzea.
- Testuinguru espaziala eta denborazkoa: espazio-erreferentzia. Denbora-erreferentzia.

■ *Testu kohesioa: ahozko edo idatzizko testuaren barne antolamendua. Testu unitatearen hasiera, garapena eta bukaera:*

- Diskurtsoaren hasiera: hasiera mekanismoak (kontaktu hartzea eta abar); gaia sartzea; tematizazioa.
- Diskurtsoaren garapena:
 - Gaiaren garapena:
 - Gaiari eustea: korreferentzia; elipsia; errepikapena; birformulazioa; hanpadura.

- Gaia zabaltzea: adibideak jartzea; errefortzua; kontrastea; azpigaiak sartzea.
 - Gaiaren aldaketa: digresioa; gaia berreskuratzea.
 - Diskurtsoaren bukaera: laburpena / laburbiltzea, testu bukaera adieraztea eta testua bukatzea.
 - Ahozko diskurtsoari eutsi eta segitzea: hitz txanda hartu, eutsi eta uztea. Laguntzea, ulertu duzula adieraztea, argibidea eskatzea. Intonazioa ahozko testuari kohesioa emateko baliabide. Intonazio patroiak nola erabili.
 - Puntuazioa, testu idatziari kohesioa emateko baliabide: puntuazio zeinuak nola erabili.
- *Testu tipologia:*
- Idatzizko testu hartzaileak:
 - Postalak, gutun pertsonalak eta posta elektronikoa.
 - Ohar pertsonalak.
 - Gonbitak.
 - Zorionak.
 - Iragarkiak.
 - Informazio foiletoak eta merkataritza foiletoak.
 - Sukalde errezetak. Kartak eta menuak.
 - Pentsako artikulua.
 - Aisiako agenda eta ikuskizun iragarkiak.
 - Horoskopoa.
 - Denbora-pasak.
 - Elkarrizketak.
 - Kantuak.
 - Literatur testuak: ipuinak, narrazio laburrak, alegiak, olerkiak.
 - Irakasleek prestatutako materiala.
 - Web guneak.
 - Jarraibideak.
 - Ahozko testu hartzaileak:
 - Ahozko testuak, irratikoak, megafoniazkoak eta grabatuak (erantzungailuak).
 - Irakasleen eta ikasleen gainerakoen azalpenak.
 - Eremu pertsonaleko solasak.
 - Toki publikoetako solasak: dendak, medikuaren kontsulta, informazio guneak...
 - Gertaerak, ohiturak, prozesuak kontatzea...
 - Jarraibideak.
 - Debateak eta eztabaidak.
 - Elkarrizketa laburrak.
 - Inkestak.
 - Iragarkiak.
 - Berriak.
 - Lehiaketak.
 - Marrazki bizidunak.
 - Kantuak.
 - Testu produktibo idatziak:
 - Postalak, gutun pertsonalak eta posta elektronikoa.
 - Ohar eta apunte pertsonalak.
 - Gonbitak.
 - Zorionak.
 - Iragarki txikiak.
 - Informazio kartelak.
 - Jarraibideak.
 - Objektu, toki eta pertsonak deskribatzea.
 - Gertaerak, ohiturak, prozesuak eta halakoak kontatzea.
 - Datu pertsonalak eskatzen dituzten eskabide eta inprimaki errazak.

- Ahozko testu produktiboak:
 - Eremu pertsonaleko solasak.
 - Toki publikoetako solasak: dendak, medikuaren kontsulta, informazio guneak...
 - Gertaerak, ohiturak, prozesuak eta halakoak kontatzea.
 - Objektuak, tokiak eta pertsonak deskribatzea.
 - Jarraibideak

3.2.2.2. Gaitasun funtzionala.

C1 mailan, ikasleak gaitasuna lortu behar du ondoren zehazten diren komunikazioko funtzioak edo hizketako egintzak burutu ahal izateko, komunikazioaren testuinguru bakoitzean funtzio horien esponente egokienak erabiliz, bai hizketako egintza zuzenen bidez bai zeharkakoen bidez, erregistro desberdin askotan (familiakoa, lagunartekoa, neutroa, formal):

Ezagutza, iritzia, sinesmena eta aierua aditzera ematearekin lotura duten funtzioak edo hizketako egintzak: baieztatzea; iragartzea; ohar gehigarriak egitea; baietz esatea; egozteak; sailkatzea; gertaera baten egiazkotasuna berrestea; aieruz aritzea; berrestea; deskribatzea; ezetzatzea; bat ez etortzea; adostasuna eta desadostasuna adieraztea; ez jakitea, zalantza, eszeptizismoa eta iritzi bat adieraztea; hipotesiak egitea; zerbait identifikatzea eta nork bere burua identifikatzea; informatzea; eragozpena adieraztea; auresatea; kontra egitea; zuzentzea; ihardestea; suposatzea.

Eskaintzarekin, asmoarekin, borondatearekin eta erabakiarekin lotura duten funtzio edo hizketako egintza konpromisiboak: bat etortzea; onartzea; baimentzea; zerbait egiteko asmoa edo nahia adieraztea; gonbidatzea; zin egitea; zerbait egiteko ezetza ematea; zerbait eskaintzea; laguntza eskaintzea; zerbait egiteko nork bere burua eskaintzea; promes egitea; atzera egitea.

Hartzaileari zerbait eginaraztea edo galaraztea helburu duten funtzioak edo hizketako egintzak, hizketako egintza izan nahiz bestelako egintza izan: aholku ematea; ohartaraztea; abisatzea; mehatxatzea; animatzea; ahalmena ematea; jarraibideak ematea; baimena ematea; eskatzea; ukatzea; gogogabetzea; ez onartzea; norbait zerbait egiteki salbuestea; asmoa kentzea; galdatzea; ikaratzea; agintzea; zerbait, laguntza, berrespena, aholkua, informazioa, jarraibideak, iritzia, baimena edo norbaitek zerbait egin dezala eskatzea; norbait baimena ukatzea; gogatztea; norbait norbaiten edo zerbaiten kontra jakinaren gainean jartzea; debekatzea; proposatzea; erreklamatztea; gomendatzea; norbait zerbait gogoraraztea; murriztea; arren eskatzea; eskaera egitea; iradokitzea; erregutzea.

Gizarte harremana ezarri edo mantentzea eta beste pertsonen gaineko jarrerak adieraztea helburu duten funtzioak edo hizketako egintzak, faktikoak eta elkartasunezkoak: gonbit bat onartu eta ezetza esatea; eskertzea; arreta erakartzea; errukia izatea; kontsolatzea; ongi etorria ematea; agur esatea; dolumina adieraztea; zoriontztea; konplimenduak egitea; iraintzea; norbaitez edo zerbaitez interesatzea; gonbidatzea; barkamena eskatzea; nork bere burua edo beste norbait aurkeztea; errefusatztea; agur egitea; lasaitzea.

Funtzio edo hizketako egintza espresiboak, egoera jakin batzuen aurrean jarrerak edo sentimenduak adierazten dituztenak: zerbait leporatzea; defendatzea; errugabetzea; mirespena, txera, poza edo zoriontasuna, lasaialdia, estutasuna eta kezka, norbait gogoko izatea eta harenganako sinpatia, onespina eta gaitzespena, damua, konfiantza eta konfiantzarik eza, desengainua, interesik eza eta interesa, arbuioa, nahigabea, mina, zalantza, eszeptizismoa, itxaropena eta itxaropen eza, estimua, asegabetsuna, harrotasuna, zerbait gogokoago izatea, erresumina, etsipena, asebetetzea, ezustea eta harridura, beldurra, tristura edo lotsa adieraztea; damu izatea; aurpegiratzea.

3.2.3. Gaitasun gramatikala.

C1 mailan ikasleak zuzentasun gramatikal handia eta sendoa agertu beharko du. Huts gutxi eginen ditu eta ia batere nabari ez direnak. Maila honetarako garatu behar diren gaitasun gramatikalak ondokoak dira:

Izen sintagma: nukleoa (substantibo eta izenordainen motak, generoa, numeroa, kasua) eta horren aldaketa determinatzaileen bidez (artikuluak, erakusleak, posesiboak, zenbatzaileak), aposizioaren bidez, sintagmaren bidez (izen sintagma, adjektibo sintagma, aditz sintagma, adberbio sintagma, proposizio

sintagma), esaldi erlatiboaren bidez, perpausaren bidez eta beste mekanismo batzuen bidez. Sintagmako osagaien tokia eta barneko komunztadura fenomenoak. Izen sintagmaren funtzio sintaktikoak.

Adjektibo sintagma: nukleoa (adjektiboaren motak, generoa, numeroa, kasua eta gradua) eta horren aldaketa sintagmaren bidez (izen sintagma, adjektibo sintagma, aditz sintagma, adberbio sintagma, preposizio sintagma) perpausaren bidez eta beste mekanismo batzuen bidez. Sintagmako osagaien tokia eta barneko komunztadura fenomenoak. Adjektibo sintagmaren funtzio sintaktikoak.

Aditz sintagma: nukleoa (aditzaren motak, denbora, aspektua, modalitatea eta era) eta horren aldaketa ukapenaren bidez eta beste mekanismo batzuen bidez. Sintagmako osagaien tokia eta barneko komunztadura fenomenoak. Aditz sintagmaren funtzio sintaktikoak.

Adberbio sintagma: nukleoa (adberbioen eta esapide adberbialen motak eta gradua) eta horren aldaketa adberbio sintagmaren bidez, preposizio sintagmaren bidez eta beste mekanismo batzuen bidez. Sintagmako osagaien tokia eta barneko komunztadura fenomenoak. Adberbio sintagmaren funtzio sintaktikoak.

Preposizio sintagma: nukleoa (preposizioen eta esapide preposizionalen motak) eta horren aldaketa adberbio sintagmaren bidez, preposizio sintagmaren bidez eta beste mekanismo batzuen bidez. Sintagmako osagaien tokia eta barneko komunztadura fenomenoak. Preposizio sintagmaren funtzio sintaktikoak.

Perpaus bakuna: perpaus motak, osagaiak eta haien tokia. Komunztadura fenomenoak.

Perpaus konposatua: harreman logikoen adierazpena: konjuntzioa; disjuntzioa; aurkakotasuna; kontzesioa; konparazioa; baldintza; kausa; xedea; ondorioa; denbora erlazioak (lehenagokotasuna, gerokotasuna, aldeberekotasuna).

3.2.3.1. Eduki gramatikalen denboralizazioa

Lehen lauhilekoa

LEHEN IKASTUNITATEA: “Gure nortasuna”.

Helburu nagusiak:

- Jendearen izaeraz mintzatzea
- Jendearen izaeraz eta harekin lotutako gaiez testu batzuk ulertzea eta sortzea

Berriazko helburuak:

- Zenbait esaera zahar ikastea, eta esaera horiek bideratzen duten ikusmoldea eztabaidatzea
- Euskaldunen gaineko estereotipoei buruzko testuak ulertu eta kritiko aztertzea
- Gizarteak generoa definitzeko dituen bideak aztertu eta komentatzea
- Jendea sailkatzeko manerei buruz eztabaidatzea
- Estereotipo positiboak eta negatiboak, adinaren eta generoaren arabera

Gramatika ezagutzak:

- Nominalizazioa. Nominalizazioa iraganean: egin izana.
- Zenbatzaile zehaztugabeak eta mugagabea
- Baldintza hipotetikoak

Testu ezagutzak:

- Iritzi artikulua baten egitura aztertzea
- Gogoeta egiteko testu bat idaztea
- Esaera zaharren eta esamoldeen erabilera egokia egitea
- Deskripzio bat egitea

BIGARREN IKASTUNITATEA: “Liburuak esku artan, telebista begi aurrean”

-Helburu nagusiak:

- Aisialdian egiten ditugun jardueri buruzko testuak sortzea
- Zenbait testu mota (iritzi artikulua, narrazioa, poema...) bereiztea eta haien ezaugarriak identifikatzea

-Berariazko helburuak:

- Euskaraz eskura ditugun baliabideak (prentsan, zineman, literaturan...) ezagutzea
- Testu motaren arabera erregistroak bereiztea
- Zenbait testu mota sortzen ikasten
- Umorea eta ironia erabiltzen dituzten testuak zuzen ulertzea
- Euskara egokia eta euskara zuzena bereiztea
- Euskara batuari buruzko gogoeta egitea
- Gure eguneroko bizitzan kontsumitzen ditugun produktu kulturaleri buruzko gogoeta egitea

-Gramatika ezagutzak:

- Zehar-galdera
- Adiskide faltsuak (maingua, kolpatu...)
- Perpaus erlatiboaren mugak
- Hobe izan / hobeki / hobe
- t(z)ekotan

-Testu ezagutzak:

- Film edota liburu baten gaineko iruzkin bat egitea

HIRUGARREN IKASTUNITATEA: “Ohiturak, modak, tradizioak”

-Helburu nagusiak:

- Ohitura osasungarriez eta kaltegarriez mintzatzea
- Izenburuko hiru kontzeptuak bereiztea
- Gure bizimoduaz mintzatzea, eta bestelako bizimoduekin konparatzea

-Berariazko helburuak:

- Konparazioak egoki egitea, bai ahoz bai idatziz
- Hainbat aukeraren artean, aldeko eta kontrako argudioak ematea
- Tradizio zahar eta berrien gaineko gogoeta egitea
- Asmatutako tradizioen gaineko iritzi artikulua bat idaztea
- Kanpotik etorritako tradizioen gaineko gogoeta egitea
- Zenbait ohituraren eta kontsumismoaren arteko harremanaz eztabaidatzea

-Gramatika ezagutzak:

- Aditz arazleak
- Konparatiboak eta superlatiboak
- Berdintasuna adierazteko baliabideak
- Hitz elkartuen idazkera
- Testu-antolatzaileak

-Testu ezagutzak:

- Iritzi artikulua bat idaztea

LAUGARREN IKASTUNITATEA: “Euskara, eskuara, uskara”

Helburu nagusiak:

- Euskararen gaineko gogoeta egitea
- Euskara batua zer den ulertzea

Berriazko helburuak:

- Hizkuntza batek dituen erregistroak bereiztea
- Euskara batuaren aldeko zein kontrako testuak ulertzea, eta horietaz mintzatzea
- Zenbait euskalkitako testuak ulertzea
- Idazle bati egindako elkarrizketa luze bat ongi ulertzea
- Euskara batuan ez dauden elkarrizketa batzuk ulertzea.

Gramatika ezagutzak:

- Bi urteko ardoa / bi urtetako ardoa
- lako / -n atzizkia (*-laren)
- Data eta ordua nola adierazi
- Zenbaki kardinalen eta ordinalen idazkera
- Zer bihurtu /*Zertan bihurtu
- Testu antolatzaileak

Testu ezagutzak:

- Iritzi artikulua bat idaztea

Bigarren lauhilekoa

BORZGARREN IKASTUNITATEA: “Osasuna”

Helburu nagusiak:

- Osasunaz mintzatzea
- Osasunaz eta harekin lotutako gaiez testu batzuk ulertzea eta sortzea

Berriazko helburuak:

- Osasunaz eta lan-mundua mintzagai dituen testu bat ulertzea eta sortzea
- Egoera jakin batez eta haren ondorioez eztabaidatzea

- Ustekabeko egoera baten aurrean, sentimenduak adieraztea
- Medikamentuei buruzko umorezko esketx bat ulertzea
- Botiken erabilera aztergai duen elkarrizketa bat ulertzea
- Osasunaz mintzatzea
- Itzulpen kaskarrei buruzko umorezko esketx bat ulertzea
- Protesta egiteko eta zerbait eskatzeko gutun formal bat idaztea

Gramatika ezagutzak:

- Zehar-galdera
- Murriztaileak
- Perpauk kontzesiboak

Testu ezagutzak:

- Fikziozko testu baten egitura aztertzea
- Testu luze batean, proposamenak egitea eta arrazoitzea
- Kalko okerren kontzeptua ulertzea
- Protesta egiteko eta zerbait eskatzeko gutun formal bat idaztea

SEIGARREN IKASTUNITATEA: “Janaria eta elikadura”

Helburu nagusiak:

- Janariak eta gure elikatzeko ohiturez solas egitea
- Janariarekin zerikusia duen zenbait testu ulertu eta sortzea

Berriazko helburuak:

- Goi-mailako sukaldaritzari buruzko ahozko testu bat ulertzea
- Goi-mailako sukaldaritzaren balioaz eztabaidatzea
- Idatziz, goi-mailako sukaldaritzaren inguruko zenbait ikuspuntu adieraztea
- Errezeta bateko jarraibideak zuzen ulertzea
- Giro lasaian sukaldean egiten dugunaz solas egitea
- Elikatzeko estilo jakin bati buruzko elkarrizketa luze bat ulertzea
- Elikatzeko estilo jakin bati buruzko hainbat ikuspuntu azaltzea
- Fikziozko testu bat entzun eta kontatzea
- Gai tekniko bati buruzko testu luze bat ongi ulertzea

Gramatika ezagutzak:

- Agintera
- Erlatibozko perpauk
- Zenbatzaileak
- Partikula modalak
- Kausazko perpauk
- Baldintza hipotetikoak

Testu ezagutzak:

- Ahozko testu batetik abiatuta, gaurko janari motez idaztea

ZAZPIGARREN IKASTUNITATEA: “Euskal musika”

Helburu nagusiak:

- Euskal Herrian euskaraz egiten den musikari erreparatzea
- Ikasleen musika gustuez hitz egitea
- Musika mintzagai duten zenbait ahozko zein idatzizko testu ulertzea edo sortzea

Berariazko helburuak:

- Amodiozko kanta tradizional bat ezagutzea
- Euskara batuan ez dagoen testu bat ulertzea
- Musika gustuez hitz egitea
- Pirateriaz eta haren eraginaz iritzi artikulua bat idaztea
- Musikari buruzko bideo bat ongi ulertzea
- Euskal Herriko musika talde alternatiboak ezagutzea eta haietaz mintzatzea
- Musikari buruzko ahozko erreportaje bat zuzen ulertzea
- Musikaren eta hizkuntzaren arteko harremanaz eztabaidatzea
- Artikulu bat idaztea euskal musika zer den definitzeko

Gramatika ezagutzak:

- Zehar-galdera
- Nahi izan** eta **behar izan** aditzen erregimena aditz iragangaitzekin
- Konparaziozko perpausak
- Helburuzko perpausak

Testu ezagutzak:

- Plagio / parodia / bertsio / omenaldi kontzeptuak bereiztea eta bakoitzaren ezaugarriak ezagutzea
- Argudio-testu baten (kasu honetan iritzi artikulua baten) ezaugarriak ezagutzea
- Artikulu bat idaztea euskal musika zer den definitzeko

ZORTZIGARREN IKASTUNITATEA: “Euskal Herriko herrialdeak”

Helburu nagusiak:

- Euskal Herriko herrialdeez mintzatzea
- Zenbait euskalkitako testuak ulertzea

Berariazko helburuak:

- Nafarroari buruzko kanta bat ulertzea
- Nafarroaren nortasunaz hitz egitea
- Hiztegian nafar kutsua duen fikziozko testu luze bat ulertzea
- Nafar hiztegia lantzea
- Historiari buruzko testu bat zuzen ulertzea
- Historia oroitzeko moduez iritzia ematea, bai ahoz, bai idatziz

- Idazle bati egindako elkarrizketa luze bat ongi ulertzea
- Bizkaiko euskararen zenbait ezaugarri lantzea
- Ipar Euskal Herriko erakustaldi bati buruzko ahozko testu bat ulertzea
- Ipar Euskal Herriko euskararen egoera pixka bat ezagutzea
- Ipar Euskal Herriko euskararen zenbait ezaugarri lantzea
- Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko harremanaz iritzia ematea, idatziz.

Gramatika ezagutzak:

- Izenondo mugatu gabeak
- Mugagabea
- Subjuntibera

Testu ezagutzak:

- Ipar eta Hego Euskal Herriaren arteko harremanaz iritzia ematea, idatziz.

3.2.4. Gaitasun lexikoa.

Ikasleak, C1 mailan, ongi finkatua izanen du erreperitorio lexiko zabala, esamolde idiomatiko eta lagunartekoak barne, eta hura baliatuz bere gabeziak aise gainditu ahal izanen ditu itzulginguruekin. Hala ere huts txikiak egin ditzake noizean behin, hiztegiko oker larririk gabe, ordea.

Azpigaiak eta dagozkien erreperitorio lexikoak, maila honetako helburuak kontuan hartuz, honako arlo hauetatik hartuko dira:

- Nortasuna: gorputza eta gogoia.
- Etxebizitza, etxea eta ingurua.
- Eguneroko jarduerak.
- Aisialdia.
- Bidaiak, ostatu hartzea eta garraioa.
- Harreman pertsonalak eta sozialak.
- Osasuna eta gorputzaren zainketa.
- Lana eta lanbide jarduerak.
- Hezkuntza eta prestakuntza.
- Erosketak eta merkataritza jarduerak.
- Elikadura.
- Ondasun eta zerbitzuak.
- Hizkuntza: munduan duen tokia.
- Ekonomia eta industria.
- Informazioa, komunikabideak, Internet, posta elektronikoa.
- Kultura eta arte jarduerak.
- Erlijioa eta filosofia.
- Geografia, natura, klima eta ingurumena.
- Zientzia eta teknologia.
- Politika eta gizartea.

Gaitasun honen tratamenduan kontuan hartuko da ez direla lexiko "pasiboa" eta lexiko "aktiboa" landuko, baizik eta forma eta esanahien erreperitorioak, kasuan kasuko komunikazio jardueraren (ulertzea, adieraztea, elkarreragina, bitartekotza) araberakoak. Entzule talde baten aurrean edo elkarrizketa batean bezain aktiboki erabiltzen dugu hizkuntza irakurtzen edo irratia entzuten ari garenean. Maila honetako gaitasun lexikoa, hortaz, bere izaera berariazkoarekin lotuta eskuratu behar da, komunikazio egoera desberdinetako hizkuntza-jardueren emaitza diren testuetan.

Kontuan hartuko da, halaber, lexikoa lantzean komeni dela forma plurilexematikoak eta hitz solteaz gaindiko unitateak erabiltzea, ikasleak egoki garatu ahal izan dezan gaitasun lexikoa, erabilera-eremu zabalago batean.

3.2.5. Gaitasun fonetiko-fonologikoa.

Gaitasun honek, C1 mailan, esan nahi du ikasleak baduela xede-hizkuntzako aldaera estandarretatik hurbileko artikulazio ahalmena eta aldaera horiek ahalegin handirik gabe atzemateko gai dela. Intonazioa komunikazio egoera bakoitzari egokitu behar zaio, eta aldatu egin behar da esanahiaren ñabardura sotilak adierazteko. Maila honetarako garatu behar diren gaitasun fonetiko-fonologikoak ondokoak dira:

- Soinuen eta fonema bokaliko eta kontsonantikoen aldaerak eta haien konbinazioak.
- Prozesu fonologikoen aldaerak (ahoskabetzea, ahostuntzea, asimilazioa, elisioa, bustidura, sudurkaritzea, epentesia, bokal alternantzia, etab.)
- Azentu aldaketak eta azentugabetasuna perpausean, ondorio sintaktiko eta komunikatiboekin.

3.2.6. Gaitasun ortografikoa.

C1 mailan, ikasleak testu idatzietan xede-hizkuntzaren konbentzio ortografikoak ulertu behar ditu, eta erabili egin behar ditu testuak idazteko, zeinetan egitura, lerroaldekako banaketa eta puntuazioa egokiak eta praktikoak izanen baitira, eta ortografia ere zuzena, noizbehinkako huts tipografikoak gorabehera. Hona hemen maila honetarako garatu behar diren gaitasun ortografikoak:

- Alfabetoaren/karakterearen aldaerak eta haien erabilera forma desberdinetan.
- Fonema eta soinuen irudikapen grafikoaren aldaerak.
- Maileguen egokitze ortografikoa.
- Tipografia-, ortografia- eta puntuazio-zeinuen balio diskurtsiboak.

4. EBALUAZIOA.

7.1. Ebaluazio irizpideak.

Ikasleak maila honi dagozkion gaitasunak bereganatu dituela esanen da, trebetasun bakoitzerako 2. atalean azaldu diren helburu orokor zein berariazkoak lortu dituztenean. Horretarako, ekaineko azterketa finala edo iraileko proba (ekaineko azterketa osoa edo horren zatiren bat suspenditu izan balu) gainditu beharko du ikasleak.

7.2. Ebaluazio prozedura

A. Ebaluazio formatiboa.

Hau maila zertifikatiboa izanik, gutxieneko maiztasunez eskolara etortzen diren ikasleei, ebaluazio formatiboa eginen zaie, ikasturte akaberan mailari dagokion azterketa gainditzeko moduan egon daitezten. Ebaluazio formatiboa ikasleak bere aurrerapena eta ikasprozesua zein den jakiteko, irakasleak egindako datu bilketa da. Ebaluazio honen bidez, ikasleek jakinen dute objetiboki zein den beren aurrerapena. Informazio honekin guziarekin, irakasleak ikasleei zein duten egin beharreko bidea erakusten ahal die.

a. Ebaluatutak izanen diren zereginak.

Ikasturtean zehar proba formal bat eginen da irakurriaren ulermena, entzunaren ulermena eta idazmena neurtzeko. Martxoaren hasieran edo izanen da. Dena den, eta horietaz gain, ikaslearen eguneroko martxa da benetan kontuan hartu beharrekoa.

Lauhileko bakoitzean:

- Entzunaren ulermena: gelan egindako 3 ariketa gutxienez (proba formalekoak barne)
- Irakurriaren ulermena: gelan egindako 3 ariketa gutxienez (proba formalekoak barne)
- Idatzizko adierazpena: gutxienez 4 ariketa (proba formalekoak barne)
- Ahozko adierazpena: gutxienez 2 behaketa. Irakasleak gelan ahozko adierazpena lantzeko egindako ariketetan oharrak jasoko ditu.

b. Ikaslearendako informazioa.

Hiru hilabetetik behin irakasleak ikasle bakoitzarekin elkarrizketa bat izanen du. Horretan ikasleak bere lanaren, aurrerapenaren eta zailtasunen... autoebaluazioa egingen du. Irakasleak eboluzioaren berri, trebetasun bakoitzean lortzen ari den gaitasunaren berri.... emanen dio. Ikasleak dituen zailtasunei aurre egiteko modua, hobetzeko modua... erakutsiko dio

Dena den, maila honetako ikasle guzietan egin beharko dute azterketa finala.

B. Azterketa finala – Proba zertifikatiboa.

C1 mailako azterketa ikasleek komunikatzeko helburuarekin hizkuntzaren lau trebetasun nagusietan duten gaitasuna neurtzeko helburuarekin osatu diren probak dira.

Azterketa finalaren ezaugarriak.

Probak lau zati izanen ditu:

PROBA	PUNTUAZIOA	GUTXIENEOA	IRAUPENA
Irakurriaren Ulermena	20p	%60 (12 p)	1h15'
Entzunaren Ulermena	20p	%60 (12 p)	45'
Idazmena	20p	%60 (12 p)	2h
Ahozkoa	20p	%60 (12 p)	30'(Hiru hautagaiek).

Irakurriaren ulermena, Entzunaren ulermena eta Idazmena saio berean egingen dira. Ahozkoa beste batean egingen da.

Ahozkoa binaka edo hirunaka egingen da eta grabatua izanen da.

Ahozkoaren egitura eta iraupena	
Pausoak	Denbora
1. Aurkezpena	1'
2. Bakarriketa	Argibideak: 1' Prestaketa: 2' (ikasle bakoitzak) Bakarriketa: 3'-4' (ikasle bakoitzak)
3. Elkarrizketa	Argibideak: 1' Prestaketa: 2' Elkarrizketa: 6'(bikoteek) 9'(hirukoteek)
	DENERA: 25'-30'

Gehiago jakiteko: "Especificaciones de Candidatos de C1"

7.3. Kalifikazio irizpideak.

Trebetasun bakoitza independentea da; ez da blokerik egingen (idatzia/ahozkoa) eta ez da bat gainditu beharko besteak egin ahal izateko. Beraz, ikasle guzietan trebetasun guzietan egin ahal izanen dituzte. Azterketa osoa gainditzeko eta dagokion ziurtagiria lortzeko, beharrezkoa izanen da azterketaren zati guzietan gainditzea. Zatiaren batean, eta bakarrik batean, %50 lortzen bada, nota hori konpentsatu ahal izanen da azterketako gainontzeko atalekin baldin eta beste ataletako kalifikazioa %60koa bada edo gainditzen bada. Proba zertifikatiboak indarrean dauden espezifikazioen arabera prestatu, kudeatu eta zuzenduko dira.

Probaren inguruan ikasleei eskaintzen zaien informazioan GAI ala EZ GAI kalifikazio orokorra azaltzen da.

5. METODOLOGIA.

Hizkuntza, gure ikuspuntutik begiratuta, "gizarte elkarreragineko" hainbat egoeratan komunikatzeko balio duen sistema da; egoera horietan hizkuntza sistema hori modu esanguratsuan eta testuinguruarekiko egokian erabiltzen da, hainbat ataza aurrera eramateko. "Egintzara begirako hurbilketa" hau, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuak biltzen duena, izanen da hizkuntzak ikasi eta irakasteko erabiliko den metodologiaren ardatza. Ikasketa hori oinarritzeko, berariazko helburuak abiaburu hartuta diseinatutako atazak erabiliko dira. Ataza horiek egiteko, ikasleek plangintza, gauzatze, kontrol eta konpontze estrategiak erabiltzen ikasi beharko dute, eta bai diskurtso prozedurak eta ezagupen formalak ere, komunikazio egoeretarako egokiak diren testuak ulertu eta produzitzeko gauza izan daitezten.

Atazek, eta haiekin lotura duten jarduera guztiek, ikaslea eta haren jarduna hartuko dituzte ardatz nagusi. Irakaslearen papera funtsean aurkezlearena izanen da, jardueraren bultzatzaile eta ebaluatzailearena, eta hizkuntzaren erabilera egokia gehiago balioetsiko du hizkuntzaren sistema teorikoa eta zuzentasun formala baino. Erabiliko dugun metodologiak, bada, ikasleari ataza horiek eraginkortasunez gauzatzeko behar dituen gaitasunak eta trebetasunak emanen dizkio.

Eduki mota desberdinak modu integratuan aurkeztuko zaizkio ikasleari, ulermen, adierazpen, elkarreragin, bitartekotza eta haien konbinazioen barrenean.

Hizkuntza hutseko edukiak komunikaziorako bide dira.

Gramatikaren eta lexikoaren ikaskuntza helburu horretarako tresna da, ahal den neurrian arauen indutitzea erabiliz.

Gramatika gaitasunak ebaluatzeko, komunikazio errealeko eta testuinguru batean jarritako egoerak erabiliko dira beti. Hutsak tarteko hizkuntza bezala onartzen dira, eta sistematikoak direnean baizik ez dira kontuan hartuko edo komunikaziora traba egiten diotenean: hutsa aztertzeak ikasleak bere jardunaren gainean gogoeta egin eta hobetzeko balio du.

Gaitasun soziokulturalak garatzeko, beti atazen bidez bereganatu beharko dituzte. Ataza horietan benetako materialak erabiliko dira, ikasleek ikasten dituzten hizkuntzen kulturetako ohitura eta ezaugarriekin kontaktu zuzena eduki dezaten.

Ikasleek berezko gaitasunak ez ezik, autoformaziorako behar diren ikaskuntza estrategiak ere garatu beharko dituzte.

Hizkuntzaren erabilera egokia bultzatzeko irakasleak hainbat ikasketa esperientzia aurkeztuko ditu. Haietan:

- Ikasten den hizkuntzan mintzatzen diren kulturak ezagutzeko interesa eta sentsibilitatea sustatuko dira.
- Ikasleak komunikatzeko bere buruarengan behar duen konfiantza bultzatuko da.
- Ikasgelan ikasteko motibazioa handituko da, eta,

Nork bere buruz ikasteko gaitasuna garatuko.

6. MATERIALAK ETA BALIABIDEAK.

Irakurriaren ulermena lantzeko, urtero, ikasleek lau liburu irakurriko beharko dituzte. Lau horietarik, hiru euskaraz sortuak izanen dira, eta laugarrena bertze hizkuntza batetik euskarara ekarritako bat. Aurten, liburu hauek irakurriko ditugu:

-Ana Malagon, *Gelditu zaitzte gurekin*, Elkar, 2017

-Uxue Alberdi, *Jenisjoplin*, Susa, 2017

-Hainbat egile, *Hobe kontatzen ez badidazu*, Pasazaite, 2014

-Eider Rodriguez, *Bihotz handiegia*, Susa, 2017

Horretaz aparte, irakasleak zenbait hedabide, hala digitalak nola paperekoak, erabiliko ditu iturri gisa, klasean lantzeko testu motzak ateratzeko: *Berria*, *Argia*, *Gaztezulo*...

Entzunaren ulermena lantzeko, irakasleak Euskadi Irratitik, Euskalerrira Irratitik edo Euskal Telebistatik aterako du materiala, bai eta Ikasbiletik, IVAPetik edo bertzelako iturrietatik.

Metodologia honen barruan, gelako baliabideak erabiltzen diren bezala (kainoia, internet...), Baliabide Gelan daudenak ere (kontsulta eta irakurketa liburuak, audioak, bideoak, laborategia, internet eta abar) erabiltzen ahal izanen dira, betiere irakasleak zehaztuko duen moduan.

7. JARDUERA OSAGARRIAK.

C1eko ikasleak parte hartuko du Departamentuak antolatzen dituen jarduera osagarrietan, hauek ikasturteko memorian zehaztuta daude. Baita IHEOko Zuzendariordetzak antolatutakoetan ere.